



Manatia arriskuan

Ehundik gora manati heldu dira Floridako itsasertzera, guztiak hilik. Manatia desagertzeko arriskuan dago eta biologoak oso kezkatuak daude, animalia horren etorkizuna ez baita nolana hainkoa. Floridako hondartzetan aurkitu dituzte ehun eta hogeita hamaika manati eta egunero hiru gehiago agertzen dira; guztiak hilik lehorreraten dira. Ugaztun horien heriotza zerk eragin duen jakin nahian dabilta biologo eta ikertzaileak, itxuraz behintzat, osasuntsuak baitirudite hondartzetan azaldutakoek. Autopsiek erakutsi dutenez, neumoniaz hil di-

ra guztiak, baina, gaixotasun horren eragileak ez dute aurkitu. Bi hipotesi aipatu dituzte adituek: birusen bat izan dezakete manatiek edo bestela, marea gorri toxikoren batek kutsatu ditu. Marea toxikoa, zenbait landare urtar loratzerakoan eratzen da eta pozoiak ugaztunak hiltzen ditu. Adituek usteak soilik dituztenez, manatien odola aztertuko dute heriotza horien erantzun zehatzak jasotzeko asmoz. Bitartean, biologoak oso arduratuta daude. Hildako manatiak, helduak zirenez, ernalketa-garaian zeuden eta beraz, horien heriotza are eta larriagoa da. Manatiak beren habitatakt galtzen ari dira, bizileku dituzten itsasert-

tzak gero eta industria-lizatuagoak eta ondorioz, poluituagoak baitira. Untzien joan-etorria dela eta, kolpe ugari jaso behar izaten dituzte manatiek eta gainera, erraz gaixotzen dira ugaztun horiek.

Gos d'atura: artzain-txakur zena hiri-txakur bihurtua

Artzain-txakurraren arraza bera 1929an agertu zen lehen aldiz Bartzelonan egindako erakusketa batean. Txakur-arraza honek nolabaiteko homogeneitatea lor zezan, Jorba andre-gizonen burutu zuten egitekoa, horretarako ale asko



"Gos d'atura" arrazako "artzain-txakurra" serioa da, azkarra, izaera landatarrekoa eta begirada zintzoa duena.

eta asko gurutzatu eta arraza purukoak sortuaz. Katalanezko "gos d'atura" terminoak "artzain-txakur" esan nahi du, hau da, besteak beste, artaldeak eta ahuntz-taldeak artzaira gidatu eta kortan sarrarazteko erabiltzen direnak. Gaur egun, txakur-arraza hori desagertu delako, hiri-txakur bihurtu da. Txakur serioa da, azkarra, izaera landatarrekoa eta begirada zintzoa duena. Batzuetan, zapuztia dela ematen du ezezagunekin fidagaitz agertzen delako, baina zaindari zoragarria da, hotza, beroa eta eguraldi txarra ongi jasaten duena. Txikitari jostatzea gustatzen zaio eta hurrekin ongi konpontzen da. Urteak pasatu ahala, burutsu, arduratsu eta zaindari bihurtzen da. Besteentzat probetxuzko izateko, edo bestela zoritxarrekoa izan ohi da. Familia barruan paper aktiboa emango dion nagusiarekin ongi konpontzen da.



Manati-talde handia aurkitu dute hilik Floridako itsasertzean. Adituek ez dakite oraindik ugaztunen heriotzaren arrazoia zein den. Ugaztun horien egoera kezagarria da une honetan, gaixotasunak eta itsasertzeko hirien garapena direla-eta, desagertzeko zorian dago manatia.

